

## BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAREN ANEXO, CASARES-TOMASENE KULTUR ETXEAN IRRATI ZERBITZUA, ETA LANTEGIAK DINAMIZATZEKO ETA IRRATI ETA KOMUNIKAZIO IKASTAROAK EMATEKO ZEREGINAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

### ERANSKINA. CASARES IRRATIAREN PROIEKTUAREN, ETA HORREN IRRATI ETA KOMUNIKAZIO LANTEGIAREN ILDO NAGUSIAK

Dokumentu honetan, erreferentzia moduan eta lotespenik gabe, Casares Irratiaren proiektuaren, eta horren irradi eta komunikazio lantegiaren ildo nagusiak biltzen dira.

#### 0. Sarrera: ISLA IZAN, IRLA IZAN

Proiektu honen bidez, Casares Irratiak orain artean egindako ibilbidea bultzatu nahi da, irradi proiektua iritzi publikoari ezagutzera emateko garaian pizgarri berriak aurkitzearen.

*"Isla izan, irla izan" kontzeptuarekin, proiektuaren ardatza metafora moduan laburtzen da:*

**Isla izan:** Kulturaren munduan egun gertatzen ari denaren ARGAZKI jarraitua egitea proposatzen da; edukien bidez, krisiaren ondorioz maila horretan sortzen ari den gero eta hutsune handiagoa estaltzen laguntzeko, irizpide kulturalen eta sozialen arabera soilik jardunez.

**Irla izan:** Lantzen diren edukietan BEREZKO NORTASUNA eta horiek hedatzeko filosofia lortzea, ikuspegi kultural batetik edukietan bete-betean sakonduta. Proiektu honetan garrantzi handia ematen zaio ondoren landu beharreko edukiak hedatzeari, bai eta Internet bidez egin daitekeen lanari ere.

Helburu horrekin proposatutako ideia nagusien laburpena:

- **Kulturgintzaren munduan egun gertatzen ari denaren ARGAZKI jarraitua egiten laguntzea**, edukien bidez. **Paisaia kulturala** deitzen diogu horri. Kulturgintzaren munduan egun dauden mugimenduen, artisten eta agenteen berri ematea, sakonki, albiste hutsetik haratago joango den tratamendua ematen saiatuz. Irratiaren webgunean errealitate hori islatu ahal izango duen atala sortzea, harremanekin, estekekin...
- **Artxibategi eginkizunari garrantzia ematea:** Kulturaren alorrean gertatzen dena jasotzen den heinean, hori Interneten modu errazean eskuragarri jartzea. **Memoria kulturala** edo ondare kulturala deritzogunari eustea, beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzan, ahal dela.
- **AHOTSAREN LABORATEGI bat sortzea:** Lantegiko eta laborategiko eginkizunak batuko dituen Ahotsaren Laborategia sortzea. Ahotsarekin lan egin nahi duen edonorentzat erreferentziatzkoa izan litekeen proiektua sortzea, irradi ekoizpenetik eta grabazioen mundutik abiatuta.

Helburu horiek betetzeko baliabide osagarriak:

- Sortzaileei eta agenteei **erraztasunak** ematea edukiak **berrerabiltzeko**; batez ere, Internetek ematen dituen baliabideen bitartez.
- **Erreferentziazko programa kulturalak euskaraz eta gaztelaniaz sortzea**, programazioan Ahotsaren Laborategiko edukiekin batera; gainera, Internet bidez edo beste irradi batzuetan eman ahal izango direnak.

- **Eduki espezializatueta euskarari lehentasuna ematea**, hedabideen esparruan egun sortzen ari den informazio hutsunea eta gabezia betetzen laguntzeko.
- Irratiak berak sortutako **edukiak hedatzeko aukera** ematea (ikasleenak ez, nahi ez badute), **copyleft lizentziapen**. Beste irati batzuei aukera ematea eduki horiek hedatzeko.
- **Kolaboratzaileen sareari garrantzia ematea**: Kolaborazio bereziak ('sinadurak'); beste erakunde batzuekin egindako trukeak (adibidez, prestakuntzaren truke erakundearen edukiak jasoko dituzten programak), Ahotsaren Laborategiaren barruan sartuko liratekeenak; beste irati batzuekiko hartu-emanak...
- **'Tokikoa' eta 'unibertsala' dena batzea**. Edukietan, Donostialdeko sortzaileei eta Donostialdeko gertakariei lehentasuna ematea. Donostialdeko kultura agendaren profila ikusita, ez dago zalantzarik interes zabalagoko edukiak sortuko direla.

Horrekin guztiarekin, honako lau helburuok lortu nahi dira:

- **Erakustokia**: Internet euskarri hartuta, sortzaileei erakustoki dinamikoa eskaintzea, haiek ezagutzera emateko eta euren lanak erakusteko.
- **Lantegitik laborategira**: ahotsaren laborategi bat sortzea, proiektu modernoa eta berritzailea lortzeko.
- Gizarteari **zerbitzu** bat eskaintzea: paisaia kulturala, memoria kulturala.
- Edukiak eta iratiaren dinamika bera **Internet** bidez eta artxibategi bidez hedatzea.

Laburpena amaitzeko, oinarrizko funtzionamenduari begira, honako prozedura hau proposatzen da:

- Kazetariei jakinaraztea beharrezko **prestaketa denbora kontuan hartu behar dela** edukiak sortzeko.
- **'Ahotsaren Laborategia'-ren inguruan proiektu erakargarri bat sortzea**; alde batetik, amateurrak eta, bestetik, profesionalak bilduko dituen. Bakoitzari bere lekua bilatzea, modu orekatuan; eta, gainera, eduki horiek hedatzeko aukerarekin (ikus 'Sormen pilulak', 7. atalean).

## 1. PROIEKTUAREN OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- Kulturaren ikuspegitik, **hutsuneak betetzeko eta beharrei erantzuteko** joera edukiko duen proiektua izatea ('memoria kultural' bat eta 'paisaia kultural' bat osatzen laguntzeko).
- Interes berezia jarriko duena **mota orotako sorkuntzaren** eta sortzaileen inguruan.
- Ikuspegi kulturaletik, **artxibategi eginkizuna** beteko duena; sortzaileen, erakundeen eta, oro har, kulturgintzaren alde egiteko.
- **Interneten** isla garrantzitsua eta dinamikoa izango duen proiektua izatea.
- **Lantegi eginkizuna** beteko duena; irati sorkuntzan hastapenak egiteko eta soinu laborategia sortzeko (Ahotsaren Laborategia deituko diogu), sorkuntzaren ikuspegitik.

## HORRETARAKO TRESNA NAGUSIAK:

### Donostia Kultura

Konstituzio Plaza, 1 • 20003 Donostia-San Sebastián

tel (0034) 943 481 150 • faxa 943 481 189 • [donostiakultura@donostia.org](mailto:donostiakultura@donostia.org)



- Sortzaileentzako **bozgorailua**: Donostialdeko paisaia kulturala osatzeko, sortzaileei euren lana ezagutzera emateko aukera ematearren.
- **Erreferentzialtasuna**: esperientziaz, lantegitik laborategirako urratsa ematea. Filosofia ireki batean oinarritutako eskaintza berezia egitea, Ahotsaren Laborategiaren bitartez.
- **Artxibategia**: sareko artxibategia, memoria kultural bat sortu eta osatzeko.
- **Internet** bidez hedatzea: sozializazioa lantzea, irudi berri bat sortuta (ausarta, dinamikoa); harremanen sare bat egitea. Edukiak askatasunez hedatzeko erraztasunak ematea.

## 2. TESTUINGURUA

### 2.1. ERAKUSTOKI BATEN ETA BOZGORAILU BATEN BEHARRA KULTURAN: KRISIA HEDABIDEETAN

Krisialdian gaude. Ekonomia krisiaren ondorioetako bat da **gero eta txikiagoak, mugatuagoak eta urriagoak izatea kulturari eskaintzen zaizkion tarreak edo erakustokiak** kulturgintza ezagutzera emateko garaian. Irrati eta telebista programazioetan desagertzen ari dira programa kulturalak, eta idatzizko hedabideetan gero eta orrialde gutxiago dira kulturaren inguruan dihardutenak. **Egoera are eta okerragoa da euskaraz sortutako kulturari dagokionean.**

Ildo horretatik, **Casares proiektuak**, besteak beste, **eginkizun garrantzitsua izan dezakete hutsuneak betetzeko garaian**; betiere, bere neurrian eta edukien behar bezalako sozializazioa oinarri hartuta.

### 2.2. DONOSTIA KULTURAREN MUINA

Donostia Kultura Enpresa Erakunde Publikoak proiektu garrantzitsuen ildoari jarraitu dio, jarraitzen ari da eta etorkizunean ere jarraituko dio. Horien artean dago "Donostia, 2016ko Europako Kultur Hiriburua". Donostia ezinbesteko erreferentzia da, adibidez, euskarazko kulturgintzan. Hala, **Donostia bera oso informazio iturri garrantzitsua da.**

Eta, gainera, Donostiak oso inguru kultural aberatsa du; askotan, dinamika kulturalaren erdigunea izatera iristen dena eta, oso sarritan, euskaraz hitz egiten duena: antzerkian, literaturan, artean...

Ildo horretatik, Casaresek balio handiko zeregina bete dezake gizarteari begira: hutsuneak betetzen lagunduz, sortzaile berrien proiektuak heda daitezen sustatuz, kultura oro har dauden gabeziak betetzen lagunduz.

### 2.3. ONDORIOA

Casares Irratiak **egun gertatzen ari denaren ARGAZKI KULTURALA** egiten lagundu dezake.

Sortzaileen kasuan, **BOZGORAILU** eginkizun hori funtsezkoa da euren lana ezagutzera emateko.

Casares Irratiak ahalegin berezia egin beharko luke bere emanaldiak sare sozialen bidez ezagutzera emateko eta webgunean **edukiak hedatzeko bidea errazteko**, sortzaileek elkarrizketa horiek euren guneetan erabil ditzaten.

Erakunde eta agente kulturalen kasuan, Casares Irratiak MEMORIA eta artxibategi eginkizuna bete beharko du. EZ GARA BILTZEN ARI gure kulturagintzaren hurbileko historia. Casares Irratiak **gai horretan aitzindari** izan beharko luke, ikuspegi kulturaletik lan eginez: pixkanaka, audioen bitartez artxibategi kultural bat osatuz.

### 3. IRRATIAREN FILOSOFIA

#### 3.1. ZEIN FILOSOFIA IZAN DEZAKE IRRATIAK ADIERAZITAKO TESTUINGURUAN?

- Gizarteari **'irradi kulturala'** dela nabarmentzea, honako eginkizun hauen bidez: mugimendu kulturalaren bozgorailua (paisaia kulturalaren argazkia egitea) eta memoria kulturala.
- **Lantegi izatetik laborategi izatera:** Lantegi izaerari eustea (irradi prestakuntza klasikoa); baina, Ahotsaren Laborategia dela nabarmenduta; eta sortzea (horrela, ahotsarekin lotutako munduaren ikuspegi zabala eta ausarta emateko, eta kolaborazioak bilarazteko).
- **Interneteko presentzia indartzea** eta ustiatzea.
- **Kolaborazioak bilatzea**, bai tokian bertan, bai profesional gisa.
- **ORO HAR: Kulturaren arloan erreferentzialtasuna sortzea, mugimendu kulturalen bozgorailu bihurtuta.**

#### 3.2. ORAIN ARTE EGINDAKO BIDEA ERRESPETATUZ

Casares Irratiak ahalegin handiak eta interesgarriak egin ditu orain arte. Urte luzez egindako lana ez litzateke galdu behar; hortaz:

- Orain arteko jarraibideei eta partaidetza motari ateak zabaldu beharko litzaizkieke.
- Era berean, irradi profil berri batean sakondu beharko litzateke, beste eragin esparru batzuetara helduta (euskal jarduera kulturala, kulturagintza orokorra, inguruko kulturagintza, erakunde txikiak eta handiak...).

Halaber, komeni da irratia sustatzeko beste kanpaina bat egitea; batik bat, komunikazio orriak dituzten hedabideetan, sare sozialetan, eta irratia frontean guztietan eta 'irudian'.

#### 3.3. INTERNETEN PRESENTZIA AREAGOTZEA

**Internet funtsezkoa da, bai edukiak hedatzeko, bai eta Irratia bera ezagutzera emateko. Beraz, sare sozialetan haren presentzia areagotu behar da.**

Interneten egin daitekeen lanari buruz, honako hau azpimarratu beharko litzateke:

- Webgune erakargarria sortzea, diseinu moderno eta praktikoa, eta berezko nortasuna izango duena.
- Edukien eta programen arabera bilaketa bat sortzea.
- Harreman sare bat lantzea: Interneten isla duten beste agente batzuekin, beste irradi batzuekin.

- Sortzaile ezagunen gida bat sortzea webgunearen edukien bitartez (harremanak, estekak, edukiak, deskribapen fitxak...).
- Webgunetik kolaborazioak eskatzea agente kulturekin, sektoreka (tokikoak eta askotarikoak).
- Bereziki, sare sozialetako presentzian lan egitea.

#### 4. FUNTZIONAMENDUA PROGRAMAZIOARI BEGIRA

##### + ZEREGIN TEKNIKOAK:

Azpiegitura (emanaldia, tresneria teknikoa, etab.) osorik egunean edukitzea dute helburu. Esku hartze espezializatua behar izanez gero, antzemandako hutsuneak DONOSTIA KULTURARI jakinarazten zaizkio.

##### + DINAMIZAZIO ZEREGINAK:

Honako hauek dira:

- Kazetari, kontrolista eta koordinatzaile eginkizunak, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.
- Programak koordinatu eta errealizatzea, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.
- Kanpoko lana: zuzeneko grabazioak, elkarteekin harremanetan jartzea.
- Barruko lana: ahotsaren laborategia eta Irrati Lantegia koordinatzea.

Horretarako, honako lan planteamendu hau egin da: asteko 40 orduko arduraldia, urteko hilabete guztietan (abuztuan izan ezik), baldintza teknikoen agiriko 1. klausularen a) eta b) ataletan jasotako zerbitzuak egiteko -hots: a) Casares Irratia eta horren Irrati Lantegia kudeatu eta dinamizatzea; eta b) emanaldi zerrendetarako laguntza teknikoa ematea eta horiek kudeatzea, haren jarraipena ziurtatuta-; gutxienez, eguneko 12 orduko emanaldia ziurtatzea (10:00etatik 22:00etara, astelehenetik igandera, urteko hilabete guztietan, abuztuan izan ezik; eta ekoizpen propioko programen asteko 10 orduko emanaldia ziurtatzea, urteko hilabete guztietan, abuztuan izan ezik.

Baldintza teknikoen agiriko 2. klausulako a.2) epigrafean ezarritakoari jarraituz, enpresa kontratista behartuta egongo da egunean gutxienez 12 orduko emanaldia ziurtatzera, astelehenetik igandera (10:00etatik 22:00etara), urteko hilabete guztietan, abuztuan izan ezik.

##### + EMANALDIETARAKO KOLABORATZAILEAK:

Mota guztietako kolaborazioak proposatzen dira:

Trukeak: copyleft (edukiak eman eta jasotzea) lizentziapean lan egiten duten irratiek landutako edukiak trukatzeko.

Ahotsaren Laborategiko kideak: komunikazioaren ikuspegitik irradi ekoizpena aztertzen ari diren kideen edukiak, eta sormen handiagoko programetan landu daitezkeenak.

Hiriko elkarteak: elkarteentzat interesgarriak izan daitezkeen edukiak, elkarte horietako kideekin elkarlanean.

Kolaborazioak elkarte orokorrekin:

Kolaborazio espezializatuak

Lantegiko kideak

+ IKASTAROAK: Orain arte bezala, kazetariak zuzendutakoak eta 'egile ikastaro' izendatutakoak batzea.

## 5. IRRATIAREN EZAUGARRIAK FUNTZIONAMENDU PRAKTIKOAN

### 5.1. IRRATIAREN IZAERA IREKIA

Eduki guztiak copyleft-creative commons lizentziapean sortuko lirateke, horiek edozein webetatik estekatzeko aukeraz eta beste irrati batzuetan emateko baimenaz (baldin eta iturria zein den argi geratzen bada).

Ildo horretatik, arreta berezia jarriko zaie kanpoko harremani: Donostian sorkuntza kulturalen eta sozialean diharduten elkarteekin; Altzako elkarteekin; elkarteekin, oro har; beste irrati batzuekin; eta, orokorrean, audioaren munduan lan egiten duten ekimenekin. **Kanpoko harreman horien bitartez eta, lizentzia malguei esker, programen erabilera zabaldu nahi da, edukiak elkarlanean sortzeaz gainera.**

### 5.2. HIZKUNTZA EREDUA

Casares Irratia proiektu elebiduna da. Hala eta guztiz, proiektu honetan zenbait esparrutan euskarari lehentasuna ematea proposatzen da, egun dauden hutsune batzuk betetzeko asmoz; horren bidez, erreferentzialtasuna sortuta eta zerbitzu kultural bat eskainita.

- Gaztelania: magazin kultural askotarikoa + lantegietatik datozen edukiak lantzea.
- Euskarazko programetan, elkarrizketa espezializatuak sartuko lirateke; oro har, gizarteari eta, bereziki, Donostialdeko sortzaileei kulturaren arloan egon litezkeen beharrak beteko dituen zerbitzua eskaintzeko. Bide batez, entzuteko garaian hizkuntzarekiko 'mendekotasun' handia izango ez duten programak (musika programak...) euskaraz egitea proposatzen da.

Ildo horretatik, **esparru kultural erdiprofesional eta amateurrarekiko agentearen eginkizuna beteko litzateke bi hizkuntzetan.** Gaztelaniaz, magazinaren bitartez izango litzateke, eta, euskaraz, kulturaren ikuspegi ia estrategiko batez.

### 5.3. SOZIALIZAZIOA

Proiektua hedatzeko proposamenak:

- Internet: sare sozialetan haren presentzia areagotzea. Estetikoki erakargarria izango den webgunea sortzea, hura eman eta hedatzeko tresna gisa.
- Kanpaina espezializatua egitea, prentsakoa eta sustapeneko baina gehiago; ingurune eta sektore jakin batzuetara heltzeko. Eskuko programa erakargarria: prentsari asmo berriak jakinaraztea eta, oro har, estetika eta mezu berri bat zaindu eta hedatzea.
- Zenbait agenterekin biltzea, asmo berriak jakinarazteko.
- Emanaldi bereziko aste bat sortzea, elkarrizketekin (irratian eta Interneten soilik), eta programa hori hedatzea, proiektua ezagutzera emateko.
- Proiektu berria aurkezteko jardunaldi 'fisikoak', 'laborategiaren' eta 'agentearen' mezua hedatzeko.

## 6. PROGRAMAZIOA

### 6.1. PROGRAMAZIOAREN IZAERA OROKORRA

Ikuspegi kulturaletik landutako programazioa proposatzen da. Ez du programazio klasiko bat (parrilla bat) sortzera bideratuta egon behar. Eduki horiek, direnak direla, **agente izateko eta (ikuspegi kulturaletik) zerbitzu izateko joeraz** sortzea.

#### Hiru zutabeko programazioa:

##### *Ekoizpen propioa:*

- Programen eginkizuna: zerbitzu kultural bat eskaintzea. Nola?:
- . Sortzaileen erakustoki izanda.
  - . Elkarteen eta ekimenen 'paisaia' bat marraztuz, elkarrizketen bidez.
    - . Sormenezko edukiak sortuz.
  - . Eduki guztiak erabiltzaileen, sortzaileen eta elkarten esku utzita, haiek heda ditzaten.

##### *Ahotsaren Laborategia:*

Alde batetik, orain arte bezala, irrati ekoizpena ikasi nahi dutenentzat plataforma praktikoa izatea.

Bestalde, plataforma praktikoa izatea ikastaroetan eta laborategian parte hartzen dutenentzat, interesgarria izatea artearen munduan, eszenan, musikan, Internet proiektuetan, kazetaritza proiektuetan... mugitzen direnentzat.

(Ikus 7. atalean ideia horren garapena).

##### *Trukeak:*

Beste irrati eta agente kultural batzuekin, lizentzia librepean.

### 6.2. PROGRAMAZIOAREN EZAUGARRIAK

#### 6.2.1. Litezkeen 'truke' harremanak

**Elkarrizketa/eremu antolatu** batek Donostialdeko paisaia eta errealitate kulturalaren ikuspegia marraztu lezake, **argazki bat sortu**.

Paisaia kultural hori elkarrizketen ondo antolatutako zerrenda baten bitartez sortuko da, eta, agente guztien lana zehaztu eta azaltzeaz gainera, **behar kulturearen inguruan gogoeta** egin dezaten eskatuko zaie.

**Irratia kulturgintzari buruz gogoeta egiteko bidea eta lekua izatea.**

### 6.2.3. Tokiko sortzaileekiko harremana

Programa espezializatuak erabil litezke tokiko sortzaileen inguruko monografikoak egiteko.

### 6.2.4. Gai sozialak

Gogoan izan behar da 'kulturaz' ari garenean beste gai batzuk sartzen direla, gizarte ereduarekin lotuta egon daitezkeen gaiak, hain zuzen. Mota horretako edukiek programa espezializatu bat izan beharko lukete, edota askotariko programetan lekua izan. Bizikidetasuna, kulturartekotasuna, ekologia...

### 6.2.5. Emanaldi asteak

Kultura asteak antolatzen diren bezalaxe, **gaikako emanaldi asteak** egin litezke, bi edo hiru astean behin, gai baten inguruan; eta berariazko programazio hori modu berezian hedatu.

Helburua litzateke irratira aste kultural 'fisikoaren' formatua eramatea: gai sozialak izan daitezke, antzerkikoak, musika esperimentalekoak..., emanaldi asteen barruan. Betiere, zuzeneko jarduera bat egin daiteke publikoarekin; horrela, jendea noizbehinka irratia espazio fisikora erakartzeko.

## 7. AHOTSAREN LABORATEGIA

### 7.1. FUNTZIONAMENDU FILOSOFIA BATERAKO IDEIAK

Oinarritzko filosofia baterako proposamenak:

- Edukiak eta jakinduria trukatzean oinarritutako programa. Ez da plan zurrun bat, metodologia itxi bat proposatzen; guztiz alderantziz. Laborategiaren filosofiara Interneten nagusi diren joerak eta moduak ekar litezke: parte hartu, partekatu, hedatu.
- Ahotsaren eta, aldizka, soinuaren munduarekin lotutako gaiak landu: irрати sorkuntza, ahotsa eta irudia, off, esperimentazioa, soinu paisaiak, ahotsaren tratamendua, irakaskuntza tekniko... eta sorkuntza librea.
- Ahots fisikoa, baina, era berean, 'ahots' estetiko (estiloa, sorkuntza) lantzeko aukera emango da.
- Ondoko hauei zuzenduta dago: kazetariak, musikazaleak, Interneteko erabiltzaileak, irratiko langileak, artearen munduko jendea, antzerkigileak, literaturazaleak... Ahalegin berezia egingo da kolaboratzeko interesa izan dezakeen jendea bilatu eta erakartzen.

Litekeen funtzionamendu baterako proposamenak:

- Oro har Ahotsaren Laborategian edo ikastaro bakar batean izena emateko aukera legoke.



- Ahotsaren Laborategiko kide egiten direnek edukiak proposatu ahal izango dituzte, ikastaroan bertan nahiz batetik besterako iragaitzan.
- Interesgarriak suerta litezkeen gaien inguruko saio praktikoak eta saio teorikoak bilduko lirateke. Bai batzuetan, bai besteetan, garrantzi handia emango zaio Laborategiko kideekin batera egongo diren beste agente batzuk bilatzeari, interesa izan dezakeen jendea erakartzeko.
- LEHENIK ETA BEHIN, ohiko irrati ikastaroekin batera, laborategiko TALDE BAT sortzen saia liteke. Talde horri eskaintza egokia egingo litzaioke ikastaro osorako.

Modu masiboan heda daitezkeen edukiak sortzea:

- Informaziokoak: gaikako saioak, ikastaroko parte hartzaileek sortuko/proposatuko lituzketenak.
- Sormenezkoak: 'sormen pilulak', 5-10 minutuko pieza txikiak sortzea (irakurketa laburrak, abesti luzeak, audio poemak, kritika bereziak, minidokumentalak...), webgunean eduki horien bilatzaile bat izatea eta beraiek beste irrati batzuetan hedatzeko aukera ematea (edo kolaborazio moduan, beste programa batzuen barruan).
- Gaikako emanaldi asteak. Noizbehinka, ohiko programazioa alde batera uztea eta gaikako emanaldi asteak antolatzea.
- Hilero, irrati programa ibiltariak egitea interesgarriak izan litezkeen lekuetan.

## 7.2. IKASTAROAK

Lantegiei dagokienez, honako hau proposatzen da:

- Komunikazio eremuaren inguruko ildoari eustea: irrati sorkuntza.
- AHOTSAREN LABORATEGI bat sortzea. Ahotsaren mundua, irrati ekoizpena eta grabazioa sakon ezagutu nahi duen edonori zuzendutako ikastaroetan oinarritutako laborategia. Ikaskuntza teknikoa eta esperientziazko batzea. Kulturgintza indartu eta sakontzea, kolaborazioak bilatuta.

Elkarteezko kolaborazioak bilatzea:

- Elkarten kolaborazioaz ikastaroak antolatzea. Materiala hedatzea, diseinu ERAKARGARRI baten bidez ikastaroak ezagutzera emateko. Material hori elkarteei ematea.

Egile ikastaroak:

- Orain artean erabilitako kontzeptuari eustea proposatzen da; baina, hura sozializatzeko garaian, komunikazioari dagokionean ahalegin berezia eginez.

Donostian, 2013ko abuztuaren 5ean.

  
San Sebastián, Ciudad de la cultura  
EEP - EPE  
Amaia Almirall López de Luzuriaga  
Zuzendari kudeatzailea

